

162/2015 Ebazpena, maiatzaren 28koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideen zuzendariarena. Horren arabera, argitaratu egin behar dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webean 1 lehentasuneko aldi baterako kontratazioko behin-behineko zerrendak, lanpostu hutsenak zein erreserbatuta daudenenak, honako kategoria hauetarako: Erizaina, Erizaintzako laguntzailea eta Administrari laguntzailea.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluak aldi baterako kontratazioko zerrendak sortzeko eta kudeatzeko modua arautu zuen 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak 2011ko uztailaren 15ean emandako Ebazpenaren bidez, 1282/2011 zenbakiduna (EHAA, 142 zk., 2011ko uztailaren 27koa), onartu egin ziren 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak; horietan ezarritakoaren arabera eskuratzekoa zen lotura estatutario finkoa Osakidetzan.

Pasa den urteko abenduaren 22ko 361/2014 Ebazpenaren bitartez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariak emandakoa, ireki egin zen 2014ko aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emateko epea (2015eko urtarrilaren 8tik 30era), 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitutako kategorietarako eta ireki behar izan diren beste 5 kategorietarako.

Lanpostu hutsak eta erreserbatuak betetzeko eta kudeatzeko premia hain handia da, ezen Osakidetzak egokitzat jo duen modalitate honetako zerrenda argitaratzea ondoko kategoria hauetan: Erizaina, Erizaintzako laguntzailea eta Administrari laguntzailea.

Behin zerrendok ordenatuta, kontuan hartuta horiek sortzeko irizpideak -laugarren atalean zehaztutakoak-,

#### EBATZI DUT

**Lehenengoa.-** Argitaratu egin behar direla Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webean 1 lehentasuneko aldi baterako kontratazioko behin-behineko zerrendak, lanpostu hutsenak zein erreserbatuta daudenenak, honako kategoria hauetarako: Erizaina, Erizaintzako laguntzailea eta Administrari laguntzailea.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen aurka erreklamazioa jarri dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariari 10 egun baliioduneko epean, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko maiatzaren 28an

  
Izpta. **José María Armentia Macazaga**  
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA

